

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Ipar Euskal Herrian erradioaktibitate maila ezagutu ahal izango da

FRANTZIAKO Erradio-babeserako eta Segurtasun Nuklearreko Institutuak (IRSN) publikoaren esku jarri du Frantziako Estatuko hainbat lekutan partikula erradioaktiboen kopurua neurtzeko tresna, Criter deiturikoa. Japonian gertatzen ari den krisi nuklearra dela-eta, interes berezia dago jendartearen norbera bizi den tokiko erradioaktibitate maila ezagutzeko.

Tresna webgune bat da: criter.irsn.fr/exercice/acteur. Ordubeteko atzerapenarekin, Frantziako hainbat lekutan dagoen gamma izpien kopurua erakusten du. Gamma izpiak gune atomikoen bihotzean gertatzen diren prozesu nuklearren ondorioz sortzen dira, eta atmosferan dagoen erradioaktibitatearen adierazle egokiak dira.


Datozen egunetan beste zenbait datu erakutsi nahi dituzte aipatu webgunean, esaterako, aerosolen maila edota euri-maila neurtzen dituztenak.

Webgunearen bihotza hainbat puntu azaltzen dituen mapa da. Puntu horiek berdeak edo urdinak –norberaren monitorearen arabera– baldin badira, erradioaktibitate maila baimendutako tartearen barruan dagoela esan nahi du; kolore horiak maila hori gutxienez baimendutakoa baino hiru aldiz handiago dela adierazten du.

Merkurioren orbitan dago jada Messenger espazio-zunda

MERKURIO Eguzki-sistemako planetarik txikiena da, eta Eguzkitik hurbilen dagoena. NASAk Messenger zunda bidali zuen hara 2004an. Messenger aspalditik ari zaigu Merkurioko irudiak bidaltzen, baina zientziarentzat interesgarrienak diren datuak lortzeko ezinbestekoa zen zunda planetaren orbitan kokatzea. Eragiketa horrek arriskuak zituen, baina iragan martxoaren 18an, propulsiio-sistema hamabost minutuz aktibatu ondoren, arrakastaz burutu zen maniobra.

Martxoaren 23an zundaren neurketa-instrumentuak piztu ziren, eta apirilaren 4an hasiko da datu bilketa. Datozen hilabeteetan Messengerrek Merkurioko hainbat sekreturen berri ematea espero da.



WWW.ASTRONAUTINEWS.IT

Elikagaien kutsadura Japonian

CRIIRAD, Frantziako erradioaktibitatearen batzorde independentea lehendakari Roland Desbordes-ek dioenez, elikagaien kutsadura uste baino larriagoa da –eta izango da– Japonian, haizea herrialdearen erdi aldera bultzatzen ari baita erradioaktibitatea. <http://ttiki.com/25154> (Frantsesez)

Uraren aurkako isolatzaile hobeen bila

Berogailua pizten dugunean normala izaten da ur zirkuituan zarata entzutea. Zarata hori zirkulatzen ari den ura bat-batean balaztatzean gertatzen diren presio handiengatik sortzen da, eta batzuetan tutueriak hondatzeko arriskua ere egon badago. Une horietan urak duen portaera aztertuz gainazal isolatzaileak hobetu nahi dira.

<http://ttiki.com/25155> (Gaztelaniaz)

Egipton iraultza, Kairoko museoan lapurreta

Urtarrilaren 28an, Kairon manifestazioa egiten ari zela, lapurreta izan zen Egiptoar Museoan. Hasieran hamazortzi pieza desagertu zirela esan bazuten ere, gerora jakin izan da gutxienez 54 ale izan direla lapurtutakoak.

<http://ttiki.com/25156> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16